

2005eko AZAROAREN 28ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, bi mila eta bosteko azaroaren hogeita zortzian, goizeko zortziak direnean, Alkatea: Joseba Egibar Artola; Udalkideak: Patxi Ezkiaga Ormazabal, Xabier Arrese Arratibel eta Jose Antonio Imaz Insausti; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- CONSTRUCCIONES ETXAIDE S.L. HITZARMENA

LIZARTZAKO UDALAREN ETA CONSTRUCCIONES MANUEL ETXAIDE S.L. ENPRESAREN ARTEKO HIRIGINTZAKO HITZARMENA, BENTA TXURI ERAIKINA EGITEKO.

LIZARTZAKo udaletxean, 2005eko azaroaren ..an.

ONDOKOAK BILDU DIRA:

Batetik, Joseba **EGIBAR ARTOLA**, LIZARTZAKo Udaleko alkate-udalburu den aldetik.

Bestetik, Manuel **ETXAIDE ALUSTIZA**, adinez nagusia, 15.962.387L NAN zk. eta Usabal industrialdea 7, 20400 Tolosa helbidea duena.

ONDOKOAK HARTU DUTE PARTE:

Egibar jaunak, LIZARTZAKo Udalaren izenean eta udala ordezkatzuz, udal horretako alkate-udalburua den aldetik.

Etxaide jaunak, CONSTRUCCIONES MANUEL ETXAIDE SL merkataritza-sozietatearen izenean eta sozietatea ordezkatzuz, elkartearen administrari bakarra gisa.

Bi aldeek onartu egiten dute besteek adierazitako ordezkapena eta, horri jarraiki, hirigintzako hitzarmen hau formalizatu dute, ondorengo aurrekariei jarraiki:

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Lizartzako Benta Txuri etxea Lizartzako Arau Subsidiarioak Berrikusteko dokumentuko A.1 Elizalde eremuko A.1.2 exekuzio-unitatearen barruan dago. Arau subsidiario horiek behin-behineko onarpena jaso gabe daude oraindik.

Bigarrena: Construcciones Manuel Etxaide SL enpresak eraikin hori erosi nahi du, eta hainbat ekarpen egin ditu Benta Txuri etxearen inguruan berrikuspen-espedientearen barruan.

Hirugarrena: Zehazki, hasierako onarpenerako dokumentua jendaurrean jartzeko epean helegite bat aurkeztu du, SABAI Arkitektoak SL taldeko arkitektoek idatzitako oinarrizko egitasmo batean jasotako antolamendu zehatza proposatuz. Proposamen horretan esaten denez, Lizartzako udalbarrutian indarrean dauden arau subsidiarioek aukera ematen dute Benta Txuri etxea bota eta etxe berria egiteko, baina haren garapena oso bideragarri egiten ez duten baldintzetan, oraingo azalera eraikiari eusteaz gain, eraikina atzera bota egin beharko litzateke, espaloia zabaldu eta igogailua jartzeko, eta 1988an arau subsidiarioak idatzi zirenean ez zen halakorik aurrikusi.

Laugarrena: Egitasmoa idatzi dutenek azpimarratu dutenez, arau subsidiarioak berrikusten hasi ondoren ikusi zenez, 2005eko martxoaren 14an hasierako onarpena jaso zuen dokumentua eta egitasmo honetan

aurrikusten dena oso antzekoak dira, orokorrean. Hala ere, dokumentua jendaurrean jartzeko epearen barruan helegite bat aurkeztu zen, Benta Txuriren ordezkari jasoko den eraikinean bete beharreko hirigintzako parametroak proposatuz. Hauek dira parametro horiek:

Aprobetxamendu-baldintzak:

Erdisotoan garajea: 160 m²-ko sabai eraikigarria gehienez ere.

Behe-solairuan, lehen solairuan eta teilatupean etxebizitzak: 400 m²-ko sabai eraikigarria gehienez ere (100 m²/etxeb.).

Profila: erdisotoa + behe-solairua + I + teilatupea edo erdisotoa + behe-solairua + II

Gehieneko garaiera: 9,00 m teilatu-hegalera, kanpoaldeko sestrako edozein lekutan.

Gehieneko okupazioa solairuko: 160 m².

Azalera eraikia guztira 370,78 m² izango dira, hots, orain eraikitakoa baino 51,03 m² gehiago. Oraingoaren aldean %15,96 gehikuntza egongo da, beraz.

Bosgarrena: Lizartzako Udalaren iritziz proposamena ona da, baina eraikinaren aprobetxamenduak izango lukeen gehikuntza ez dator bat inguruko sektoreek jasandako kargekin, eta, horregatik, desoreka egongo litzateke eremuko jabeen eskubide eta betebeharren artean.

Seigarrena: Arau subsidiarioen agiria idatzi zuen taldeak proposamen berria osatu du Benta Txuri eraikinari dagozkion zehaztapenak jasoz. Bertan, Udalaren iritziz interes publikoaren onerako izango diren hainbat betebeharrak finkatu dira, emandako aprobetxamendua

konpentsatzeko, eta hori guztia hitzarmen honi datxekion fitxa berrian zehaztu da.

Aurreko guztiari jarraiki, bi aldeek **HIRIGINTZAKO HITZARMEN** hau sinatu dute, ondorengo baldintzetan oinarrituz:

BALDINTZAK

Lehena: Bi aldeek beharrezko legezko gaitasuna onartzen diote bata besteari hitzarmen hau luzatu eta izenpetzeko eta berau fede onez beteko dutela agintzen dute.

Bigarrena: Hitzarmenaren xedea.

Hirigintzako hitzarmen honen xedea hau da: Lizartzako Udalaren eta Construcciones Manuel Etxaide SL enpresaren artean Lizartzako Arau Subsidiarioak Berrikusteko agirian A.1 eremuko A.1.2 exekuzio-unitateko Benta Txuri etxeari dagozkion zehaztapenak eta beroien kudeaketa eta garapena adostea.

Hirugarrena: Udalak hartutako konpromezuak.

Lizartzako Udalak, hirigintzako hitzarmen honi jarraiki, ondorengo zehaztapenak betetzeko konpromezua hartzen du, A.1 eremuko A.1.2 exekuzio-unitateari dagokion fitxa berria gehituz:

Aprobetxamendu-baldintzak:

Erdisotoan garajea: 160 m²-ko sabai eraikigarria gehienez ere.

Behe-solairuan, lehen solairuan eta teilatupean etxebizitzak: 400 m²-ko sabai eraikigarria gehienez ere (100 m²/etxeb.).

Profila: erdisotoa + behe-solairua + I + teilatupea edo erdisotoa + behe-solairua + II

Gehieneko garaiera: 9,00 m teilatu-hegalera, kanpoaldeko sestrako edozein lekutan.

Gehieneko okupazioa solairuko: 160 m².

Laugarrena: Construcciones Manuel Etxaide SL-ren konpromezuak.

A.1 eremuan egiten den eraikuntza-lanari dagozkion hirigintzako karga eta betebeharrak jabeak hartu beharko ditu bere gain. Hauek dira betebeharrak horiek:

- Egungo eraikinaren ordeztu beste bat eginez gero sortuko litzatekeen espaloia urbanizatzea.
- Hitzarmen honi datzekion planoan azaltzen den 250 m²-ko azalera asfaltatzea.

Karga horiek Lizartzako Udalak eman beharreko baimenean sartuko dira, Construcciones Manuel Etxaide SL enpresak bete beharreko baldituen artean. Betebeharrak ez betetzeak baimeneko zehaztapenak ez betetzea esan nahiko du, horrek dakartzan ondorioekin.

Bosgarrena: Hitzarmen hau indarrean sartzeko Manuel Etxaidek Benta Txuri eraikina erosi beharko du. Hala, Construcciones Manuel Etxaide SLk eraikinaren titularra dela frogatu beharko du eraikitze baimena lortu aurretik edo lortzeko garaian.

Seigarrena: Construcciones Manuel Etxaide SLk aurkeztutako oinarrizko egitasmoa eraikitze baimena emateko oinarrizkat hartuko da, hasierako onespeneko dokumentuari egindako helegiteen idazkiarekin batera.

Zazpigarrena: Hitzarmen honek Lizartzako Udaleko udalbatzaren osoko bilkuraren berrespena jaso behar du baliozkoa izateko.

Zortzigarrena: Kontratu hau betetzearen inguruan sortutako auzi guztiek izaera juridiko-administratiboa izango dute, 1/1992 Legegintzako Errege Dekretuko 303. artikuluan aurrikusitakoari jarraiki, eta administrazio-auzietarako jurisdikziora bideratuko dira.

Agiri honetan jasotakoarekin bat datozela eta onartzen dutela erakusteko, bertaratutako bakoitzak agiriaren ale bana sinatu du, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Lizartzako Udalaren eta Construcciones Manuel Etxaide S.L. enpresaren arteko Hirigintzako Hitzarmena, Benta Txuri Eraikina egiteko, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

Era berean, Udaleko Alkate-Lehendakaria den, Joseba Egibar Artola-ri ahalmen osoak ematea erabaki da, Hitzarmen hori sinatu ahal izateko.

3.- ITELAZPI

Lizartzako Udalerrian Konekta Zaitetz@Banda Zabala zabaltzeko, erabaki hauek hartzea proposatzen da:

Lehenengoa.- “Konekta Zaitetz @ Banda Zabala” proiektuarekiko atxikimendua adieraztea eta, proiektuaren erakunde kudeatzailea den aldetik, ITELAZPI S.A. elkarte publikoari eskatzea LIZARTZAKo udalerrian proiektua ezartzeko, ITELAZPIk definitutako terminoetan eta irismenean, 2004ko maiatzaren 11ko Eusko Jaurlaritzako Akordioan oinarrituta emandako aginduari jarraituz.

Bigarrena.- Aipatutako proiektuaren garapen egokia ahalbidetzeko, Udaltzarak eta udal zerbitzuek ekintzak aurrera eramateko konpromisoa hartu dutela adieraztea, batez ere honako arloetan:

- Behar den ekipamendua instalatzeko zentro berrien kokapenerako izapide administratiboak ahalbidetzea, hala beharko balitz.
- Kokapen berrien bilaketan kolaboratzea, kokapenak proposatuz, Udal lurrak lagatzeko akordioak onartuz edo partikularrekin kudeaketaren bitartekaritzan arituz, hala beharko balitz.
- Proiektuan erabiliko diren gaur egungo kokapenen ondare erregularizazioa sustatzea.
- Herritarren artean “**Konekta Zaituz @ Banda Zabala**” proiektua zabaltzea eta udalerrian proiektu horren garapena sustatzea, horretarako ohiko udal komunikazio kanalak erabiliz, ITELAZPIrekin koordinazioan.

Hirugarrena.- Akordio honen berri ematea ITELAZPI S.A.ri (Teknologi Elkartegia 101, 48170 Zamudio Bizkaia) eta EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteari (Zabalgune Plaza, 5, 48009 Bilbao).

Laugarrena.- Alkatetza-presidentziari Akordio hau betetzeko behar diren agiri guztiak formalizatzeko ahalmena ematea, horretarako eskumeneko titulua izanez gero.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

4.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZU. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN HITZARMENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuak eta EUDELek Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren baldintzak zehazteko lortutako aurre akordioaren berri ematen da.

Akordio honen bidez Menpekotasun egoeran dauden pertsonen zuzuendutako Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua arautu nahi da. Helburua, Gipuzkoako lurraldean zerbitzu orekatu bat lortzea eta erabiltzaileen eskubideak bateratu eta bermatzea da.

Akordioaren oinarriak, hauek dira:

- a) EEL zerbitzu orekatu eta bateratu bat eskaintzea Gipuzkoa osoan.
- b) Zerbitzua eskaintzeko ordu kopurua urteko, 1000 biztanle baino gutxiago duten herriek, 2006 urtean gehienez 2000 ordu eskaini dezakete zerbitzu honen bidez eta 2007, berriz 2000 ordu.
- c) Orduaren prezioa, Egun orduko 14,47 € kobratzen da. Akordioak kantitate hauek berrikusi du eta 2006tik aurrera 16 €-koa izanen da.
- d) Gizarte Langileen pertsona bati eman beharreko laguntza maiztasuna eta zerbitzuak bateratzen dituen eskuliburu bat egiteke dago. Lan hau urte batean amaituta egongo dela uste dute.

Akordioa 2006ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da. Horretarako 2005eko abenduaren 1 baino lehen udalek akordioarekin bat egitea onartu beharko dute eta horren berri Foru Aldundia eman. 9 hilabeteko epean herri bakoitzarekin kontaktuan jarriko dira akordioa sinatzeko.

Nahiz eta akordio hau 2006. urtean indarrean jarri, ekonomikoki 2005eko uztailetik hasiko da kontatzen. Hau da, abenduaren 1a baino lehen akordioa onestu duten udalez Foru Aldunditik menpekotasun egoeran dauden pertsonen harretagatik jasotzen den dirulaguntza ez da 14,47 €-tan oinarrituko, 16 €-tan baizik.

Guzti hori kontutan hartuta, zera proposatu da:

Ezinduen Etxeko Laguntza Zerbitzuaren eskuordetze eta kudeaketa, Udalaren esku uzteko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Lizartzako Udalaren artean sinatu beharreko hitzarmena onartzea.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

Era berean, Udaleko Alkate-Lehendakaria den, Joseba Egibar Artola Jaunari ahalmen osoak ematea erabaki da, Hitzarmen hori sinatu ahal izateko.

5.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

OBRATAKO BAIMENAK

JOSE ARZADUN EGILUZ – 536/2005

Eskatzailea: JOSE ARZADUN EGILUZ

Eskaeraren sarrera data: 2005eko Otsailak 3 Sarrera zenbakia: 58 - 2005

Espediente zenbakia: 58 -2005

Lanen helbidea: LEZIALDEKO HAITZPARTETXE Lurretan

Lanen deskripzioa: HAITZPARTETXEn BANAKAKO ETXEBIZITZA

DEKRETUA

Obra baimena

Lizartzako Haizpartetxe Baserria Berreraikitze, Gipuzkoako Foru Aldundiako Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak eginiko aldeko txostena, eta Udaleko teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau ERABAKI DUT:

Espediente honetako eskatzaileari obrak egiteko baimena, EMATEA

Obra egiteko baimenak balioa izateko, baldintza hauek bete behar dira:

1.- Obratako lizentzia indarrean sartzeko, beharrezkoa izango da, Arkitekto Elkargoak ikusonetsitako Exekuzioko Egitasmoa aurkeztea Udalean.

- 2.- Etxeari lotuko zaizkion lurak "Indivisibilidad de Fincas" deritzan errejistroko agiriaren bitartez justifikatu beharko dira (30.000 m² gutxienez)
- 3.- Obrak hasi aurretik erreplanteo akta egingo da obra zuzendaritza, jabetza eta Udal Teknikaria ere bertan egon beharko direlarik. Akta honen xedea, etxearen kokaera eta neurriak egoki izango direla ziurtatzea da.
- 4.- Eraikuntzako ordenantzen arabera egingo da obra.
- 5.- Lizartzako Laguntzako Arau Subsidiarioetako agindu orokorrak betetzera, baldintzatzea.

Baldintza Bereziak

Etxeari kotxezko sarbidea egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Departamentuak emandako baimena beharko da, Udal baimenaz gain.

Baldintza Orokorrak

- 1.- Ebazpen hau, hirugarren baten jabetza errespetatu eta horren kalterik gabe iluzatzen da.
- 2.- Jabetza-eskubidea kontuan hartu gabe ematen da baimena. Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, baimenduna ezingo da baimenaz baliatu eragindako kalteen erantzukizun zibila alderatzeko edo bere gain ez hartzeko.
- 3.- Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun-neurriak bete behar dira.
- 4.- Baimentzen diren obren inguruan, komunikazio hari, ur sare edo beste inolako zerbitzu publiko instalakuntzarik egongo balitz, obren berri eman beharko da, Zerbitzu Publikoari kalteek aurrezaintzeko; obregatik, kalterik

gertatuko balitz, ukitutako hirigintz elementuek berregin beharko dira, tokatzen diren gastuak ordainduaz.

5.- Ebazpen hau luzatzeak, ez du ematen inolaz ere, IGOKA behar duten aktibitate edo establezimenduen irekiera baimenik.

6.- Obrak, aurkeztu eta onartutako ejekuzio proiektuaren arabera burutuko dira, eta hauek hasi aurretik, obrako Zuzendaritza Teknikoaren izendapena egin beharko da. Obren luzapena, 8 hilabetetan irizten da.

Inolako aldaketarik sartu behar balitz, aurrezko adostasuna beharko du.

7.- Obrak bukatu ondoren eraikuntzaren lehen erabilpena aurkeztu behar da honako dokumentazioarekin:

- Obra amaieraren ziurtagiria, obraren benetazko kostoa adierazita.
- Fatxaden argazkia 13x18 neurrian atzetik arkitektoak sinatuta.
- Kokapen plano hiri zerbitzuen hartuneak adierazita.
- Obra berri aitopenenaren eskrituraren kopia xumea.
- Iberdrolaren Buletina.
- Hiri zergabilketan alta berria (U-4 orria).

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertze errekurtsoa jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen 116. artikularen eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzen-zuzenean jar daiteke, alde aurretik berraztertze errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

PEDRO URKIZAR LARRARTE – 567/2005

Leihoak eta atea aldatzeko baimena

ARANTXA GARMENDIA MAYOZ – 562/2005

Beheko solairuko lokalaren barrualdeko hormetako harria eta egurra atera eta atea eta leihoak eraberritzea.

JUAN JOSE MATEOS MORALES – 612/2005

Eskatzailea: JUAN JOSE MATEOS MORALES
Eskaeraren sarrera data: 2005eko azaroak 3 Sarrera zenbakia: 612 - 2005
Espediente zenbakia: 612 -2005
Lanen helbidea: ARRATE BASERRIA
Lanen deskripzioa: BAIMENIK GABE BURUTUTAKO OBRAK LEGEZTATZEA

ALKATEAREN DEKRETUA

2004ko urrian, Arrate baserian eta Arrate zubiaren ondoan baimenik gabe obrak burutu zirela ikusi zen.

Fatxadan zenbait egokitzapen lanak burutu ziren eta lehengo leihoak aldatu. Era berean, Arrateko zubiaren kontra, itxitura bat egin da, inongo distantziarik mantendu gabe.

2004ko abenduaren 3an, Juan Jose Mateo Morales-ek obrak legeztatzeko eskaria egin zen. Horretarako idatzi bat aurkeztu zuen egindako obren zenbait argibide emanaz eta egindako barne antolamendu berria azaltzen dituzten planuak gehituz. 2003ko abenduaren 22an aurkeztutako dokumentazioari buruz txostena egin zen. Bertan egindako lanei buruzko informazio zabalkuntza eskatzen zen.

2005eko urtarrilaren 5ean, jabearekin elkarrizketa izan zen Lizartzako Udalean, Elkarrizketan jabeak egindako lanen azalpen zehatza egin zion udalari eta egindako okerrak zuzentzeko borondate onena azaldu zuen.

2005eko urtarrilean idatzitako txosten teknikoan, egindako lanak erabat legeztatzeko bakoiko obra eta fatxadako irekidurei zegokien proiektua aurkeztea beharrezkoa ikusten zen.

Aurkeztutako egitasmoa osatugabea da, ondorengo dokumentuak falta bait dira:

- .- Segurtasun eta osasunbide oinarritzko azterlana.
- .- Baldintza Plegua.
- .- Estrukturaren kalkuloaren gehigarriak.

Guzti horren ondorioz, honako hau **ERABAKI DUT:**

Espediente honetako eskatzaileari, Proiektua osatuta ekartzeko eskatzea.

Itxituraren kokaerari dagokionean, itxiturak zubiaren barandatik gutxienez, 0,50 m. atzeratzeko eskatzea.

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertzeko errekurtsua jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen 116. artikulua eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsua zuzen-zuzenean jar daiteke, aldez aurretik berraztertzeko errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

CARLOS URDANGARIN PALACIO – 619/2005

| | |
|-------------------|--|
| Obra: | Txabolari Teilatua konpondu eta tximinia jarri |
| Kokapena: | Illarratsu |
| Eskatzailea : | CARLOS URDANGARIN PALACIO |
| Espediente-Zkia : | 494/2005 |

Alkatearen dekretua Obra egiteko baimena

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez:

Berrikuspen fasean dauden Lizartzako AASS-en arabera, txabolen eraikuntza baldintza mugatutan bakarrik ahalbideratzen da, eta beti ere “prekarioko lizentzipean”. Beraz, jadanik dauden txaboletan egin datezken lanak mantenimendukoak bakarrik izango dira, ordenazioz kanpo dauden txabolak baitira. Gainera, txabolen kasuan debekatua dago aisialdirako nahiz bizileku erabilera ematea.

Hori kontutan harturik, espediente honetako eskatzaileari tximini berria egiteko baimena EZ EMATEA, ERABAKI DUT.

Aldiz teilatuaren konponketari buruz, baimena EMATEA, ERABAKI DUT, baldintza hauek bete beharko direlarik:

.- Egungo dimentsioak mantendu beharko dira.

.- Estalkian erabiliko den materiala, teila keramikoa izango da.

Lizentzi hau, hirugarren baten jabetza eskubidea errespetatu eta horren kalterik gabe ematen da.

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertzeko errekurtsua jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen¹ 116. artikulua eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsua zuzen-zuzenean jar daiteke, aldeztu aurretik berraztertzeko errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita; eta, aurkeztu, Alkateari aurkeztu behar zaio.

FRANCISCO OLAETXEA KARRERA – 621/2005

| | |
|-------------------|---|
| Obra: | Gurutz Bidean, txabola batetara ur hodia pasa |
| Kokapena: | Gurutz Bidea Kalea |
| Eskatzailea : | FRANCISCO OLAETXEA KARRERA |
| Espediente-Zkia : | 605/2005 |

Alkatearen dekretua Obra egiteko baimena

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez:

2005eko urriaren 19an, eskatzaileak, obrarako baimen eskaria egin zuen, Kale Nagusiko 17ko behe oineko lokaletik atzeko baratzen dagoen txabolara ur hodia pasatzeko.

Behe oineko tegira doan hartunea ur edangarriko saretik egina da eta beraz, ezin liteke bestelako erabileratarako erabili.

¹ Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

Horretaz gain behe solairutik hartunea egitea, Gurutz Bidea errepidea zeharkatzea suposatuko luke, berezko hartunea ez den hodi bat lurperatuta.

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, obra hoiek egiteko baimena EZ EMATEA, ERABAKI DUT.

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertze errekurtsoa jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen¹ 116. artikulua eta hurrengo araber. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzen-zuzenean jar daiteke, alde aurretik berraztertze errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita; eta, aurkeztu, Alkateari aurkeztu behar zaio.

MANU LASA MIRANDA – 629/2005

| | |
|-------------------|-------------------------------------|
| Obra: | Etxeko lurra altxa eta berria jarri |
| Kokapena: | Elizondo Auzoa, 4 – 1.a Esk |
| Eskatzailea : | MANU LASA MIRANDA |
| Espediente-Zkia : | 655/2005 |

Alkatearen dekretua Obra egiteko baimena

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau ERABAKI DUT:

¹ Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

Espediente honetako eskatzaileari obra txikia egiteko baimena: EMATEA.

Behin obrak hasi ondoren, hauek ez badira burutzen emandako informazioaren arabera eta fatxadan, egitura edo instalakuntza nagusietan eragina badute, arkitekto batek sinaturiko eta Elkargo Ofizialak ikusonetsitako proiektua eskatuko da obra baimentzeko.

Hala ere Eskonbroak baimendutako eskonbrera batetara eraman beharko dira.

Lizentzi hau, hirugarren baten jabetza eskubidea errespetatu eta horren kalterik gabe ematen da.

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertzeko errekurtsua jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen¹ 116. artikularen eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsua zuzen-zuzenean jar daiteke, aldez aurretik berraztertzeko errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita; eta, aurkeztu, Alkateari aurkeztu behar zaio.

LUXIA GARMENDIA GARMENDIA – 636/2005

Balkoia konpontzeko baimena.

SAGRARIO URDANPILLETA GOGORZA – 638/2005

Balkoia konpontzeko baimena.

¹ Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

KALE NAGUSIA, 17ko HIGIEZINAREN SEGURTASUN BALDINTZAK – 553/2005

ALKATETZA DEKRETUA

IKUSIRIK.- Udal arkitektuak, KALE NAGUSIA, 17ko higiezinaren segurtasun baldintzei buruz egindako txostena.

KONTUAN HARTURIK.- Txostenaren arabera eraikuntza horren 1. eta 2. solairuen arteko forjatuaren egoera arriskuan dagoela, forjatuaren egoera kritikoa dela, egurrezko habexkak erabat ustelduta bai daude, eta horrek bertan bizi diren pertsonetikiko suposatzen duen arriskua ikusiz.

KONTUAN HARTURIK.- Hirigintza-Disziplinaren Arautegiak bere 10. artikuluan esaten duena.

Honako hau ERABAKI DUT:

Lehenengo.- Kale Nagusia 17ko eraikinaren beharrezko estabilitatea bermatzeko egitura apuntalatzeari, eraikuntzaren 1. eta 2. solairuen arteko forjatuaren egoera kritiko kontuan harturik.

Bigarren.- Forjatuak behar dituen eraberritze lanak zehaztuko dituen Arkitektuen Kolegioak ikusionetsitako proiektua aurkeztu beharko dute Lizartzako Udalarari 3 asteko epean.

Hirugarren.- Erabaki hau berehala jakinaraztea jabe eta higiezinan bizi direnei.

LIZARTZAKO JUAN XXIII ESKOLARI LAGUNTZA – 591/2005

ALKATETZAREN DEKRETUA

LIZARTZAKO JUAN XXIII Eskolak, 2005eko urriaren 13an, ikasturtearen zehar burutzen dituzten irteeratako, laguntza eskatu du.

Aurkeztutako datuak aztertu ondoren, ERABAKI DUT:

2005 urteko aurrekontuaren kargura, 1.000,00 €-tako diru-laguntza onartu eta baimentzea.

Udaleko Kontuhartzaitzari, aipatutako 1.000,00 €-tako diru-laguntza ordaintzeko agintzea.

2005 URTEKO 3. HIRUHILABETEKO URAREN ZERGA – 593/2005

ALKATEAREN EBAZPENA

Joseba Egibar Artola, Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2005eko Urriaren 13-an, ondorengo EBAZPENA luzatu du:

EBAZPENA.- 2005-eko 3. Hiruhilabeteari dagokion Uraren Zergaren errolda iadanik egina dago alta eta baja guztiak eguneratu ondoren. Denetara 275 errezibo dira eta kobratu beharreko kopurua, 4.772,53 €

Beraz, espediente osoa ikusirik eta kontutan izanik, bere aurrean ERABAKI DUT:

2005 URTEKO 3. HIRUHILABETEKO URAREN ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA

Ebazpen hau behin-betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, beronen aurka Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon

duen Administrazio Liskarretako Salan, iragarki hau argitara ematen den hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, aldez aurretik udaletxeari adierazita legeak, Herri Administrazioen Lege Arauei eta Administrazio Ihardunbide Arruntari buruzkoak, 110.3 artikuluan dioen bezela.

2005 URTEKO 3. HIRUHILABETEKO ZABORREN ZERGA – 592/2005

ALKATEAREN EBAZPENA

Joseba Egibar Artola, Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2005eko Urriaren 13-an, ondorengo EBAZPENA luzatu du:

EBAZPENA.- 2005-eko 3. Hiruhilabeteari dagokion Zaborraren Zergaren errolda iadanik egina dago alta eta baja guztiak eguneratu ondoren. Denetara 330 erreziro dira eta kobratu beharreko kopurua, 4.080,00 €.

Beraz, espediente osoa ikusirik eta kontutan izanik, bere aurrean ERABAKI DUT:

2005 URTEKO 3. HIRUHILABETEKO ZABORRAREN ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA

Ebazpen hau behin-betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, beronen aurka Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazio Liskarretako Salan, iragarki hau argitara ematen den hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, aldez aurretik udaletxeari adierazita legeak, Herri Administrazioen Lege Arauei eta Administrazio Ihardunbide Arruntari buruzkoak, 110.3 artikuluan dioen bezela.

URBA U.T.E – 616/2005

ALKATETZAREN DEKRETUA

IKUSIRIK.- 2005eko uztailaren 29ko Alkatetzaren Dekretua; horren bidez URBA U.T.E. enpresari U-1 sektorean pabeiloak eraikitze lanak geldiarazteko agindua eman zion, derrigorrezkoa den udal lizentzia ez zeukalako. Aipatutako lanak legeztatze hila bateko epea eman zitzaion.

JAKINIK.- Aipatutako Dekretuaren bidez 15 eguneko epea eman zitzaiola egokitze jotzen zituen alegazioak egiteko eta aditzera eman zitzaiola epe hori igaro ondoren Udalak dagokion zigor-espedita irekiko zuela.

JAKINIK.- Epea igaro dela, ez dela alegaziorik aurkeztu eta lanak egiten jarraitu dela.

AINZAT HARTURIK.- Hirigintzako arauen arabera, nahasitako ordena urbanistikoa berriro ezartzeko espedienteari dagokionez arduradunak, URBA U.T.E. enpresa dela, lanen sustatzaile izaki, eta baita Jorge Lizarribar Sans, Ingeniru Industrial, lanen zuzendari izaki.

AINZAT HARTURIK.- Lurzoruaren araubide eta balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legean xedatutakoa, apirilaren 9ko 1346/76 Errege Dekretuko 178. eta 184. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoa (Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen Testu Bateratua onesten duena) eta 2187/1978 Errege Dekretu bidez onetsitako Hirigintzako Diziplinari buruzko Araudian ezarritakoa.

AINZAT HARTURIK.- Apirilaren 9ko 1346/1976 Legegintzako Errege Dekretuko 184. artikuluan eta horrekin bateragarriak direnetan ezarritakoa, hain zuzen ere, Lurzoruaren

Legeari eta Hiriaren Antolamenduari buruzko Testu Bateratua onetsi zuena.

AINTZAT HARTURIK.- Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legea garatu eta ezartzeko Hirigintza Diziplinako Araudiaren 1. eta 76. artikuluetan, hurrengoetan eta bereziki 90. artikuluan ezarritakoa. Aipatutako Araudia ekainaren 23ko 2178/78 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa da.

AINTZAT HARTURIK.- Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoa.

AINTZAT HARTURIK.- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen 68. artikuluan eta ondorengoetan, eta 96.enean eta ondorengoetan xedatutakoa.

Alkate-udalburu honek, HAU ERABAKI DU:

Lehenik: Hirigintza arloan egindako arau-haustearen ondorioz zigor-espeditentea irekitzea eta arau-hauste horren arduraduntzat jotzea, URBA U.T.E. enpresa eta zuzendari teknikoa.

Horiei aditzera ematea Hirigintzako Diziplinaren Araudiko 90. artikuluan jasota dagoen zigorra ezar dakiekeela, hori guztia prozeduraren instrukzioetik etor litekeenari kalterik egin gabe.

Bigarrenik: Zigor prozeduran instrukzio-egile izendatzea Ana Jesus Zabala Garmendia andrea, udalaren idazkaria.

Aditzera ematea espeditentea ebazteko eskumena duen organoa udalaren alkate jauna dela, lurzoruaren araubideari eta hiri-

antolamenduari buruzko premiazko neurrien martxoaren 6ko 5/1998 Legeko 11. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Hirugarrenik: Ebazpen hau eta horren oinarritzat erabiltzen den txosten teknikoa jakinaraztea, URBA U.T.E. enpresaren ordezkariari eta Jorge Lizaribar Sans jaunari. Halaber, aditzera ematea 15 egun balioduneko epea, ebazpen hau jakinarazten zaien egunetik zenbatzen hasita, izango dutela beraiek nahi dituzten alegazioak, dokumentuak eta beste edozein informazio aurkezteko, bai eta, hala badagokio, baliatu nahi dituzten bitartekoak zehaztu eta frogak proposatzeko ere.

Laugarrenik: Erabaki hauen aurka, ezin da errekurtsorik jarri, izapide hutsezko egintza baitira, interesdunek beren eskubideak defendatzeko bidezkotzat jotzen dituzten ekintzak egitearen kaltetan izan barik.

IRUNTZIALDEKO POLIGONOAN UDAL ERAIKINAREN ERAIKUNTZA – JOSE IGNACIO GALARRAGA – URBA U.T.E. – 614/2005

Eskatzailea: JOSE IGNACIO GALARRAGA – URBA U.T.E.
Lanen helbidea: U-1 Unitatea – Iruntzialdea Poligonoa
Lanen deskripzioa: Iruntzialdeko Poligonoan Udala Eraikinaren Eraikuntza

DEKRETUA

2005eko uztailean, Jose Ignacio Galarraga- URBA U.T.E. enpresaren izenean, Lizartzako Udalarekin sinatutako akordioaren baitan, Udaletxearentzat eraiki behar duen Pabiloiaren oinarritzako proiektua aurkeztu zuen Lizartzako Udalean.

Momentuz, eta hiritaratze egitasmoa behin betikoz onartu bitartean, ezingo da eraikina burutzeko baimenik eman.

Hala ere, baimena eman ahal izateko Exekuzio egitasmoa Elkargoaren ikusonetsiarekin aurkeztu beharko da.

Eraikinak indarrean dagoen U-1 sektorari dagokion araudia betetzen du.

Aurkeztutako egitasmoari dagokionean, ondorengo atalak aldatu eta kontutan hartuko beharko direla ikusi da:

- Aurkeztutako egitasmoak ez du tarteko solairurik jasotzen. Hitzartutakoaren arabera, tarteko solairua egon beharko litzateke azalera osoaren protzentai batetan.
- Egitasmoan, "garabi-zubi" bat aipatzen da. Batzuetan 15 tn-koa dela esaten da eta beste batzuetan 5 tn-koa. Zenbatekoa da?
- Aurreikusten diren hornikuntzatan, ur zikinenezako hartunea non kokatu behar den zehaztu beharko da. Ondorengo hartuneak izango ditu eraikinak: ur edangarria, euri urak eta ur zikinak jasotzeko sarea, argindar hartunea, telefonoaren hartunea.
- Zimendutako hormigoia Ha-25 izan beharko luke. Tiki batzuetan Ha-20 izango dela aipatzen da.

Guzti hori kontutan hartuaz, Exekuzio Egitasmoa aurkeztu beharko da, goian aipatzen diren baldintzak aintzat hartuaz.

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertzeko errekurtsoa jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen 116. artikulua eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzen-zuzenean jar daiteke, aldez aurretik berraztertzeke errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

BERASAENEAKO BORDAREN LEGEZTAPENA – M^a LUISA ARRATE LULOAGA – 609/2005

ALKATETZAREN DEKRETUA

IKUSIRIK.- Maria Luisa Arrate Luloaga Andreak eskatuta, Berasaeneako Bordaren legeztapenerako hasitako espedientea. Bordaren ezaugarriak hauek dira:

- .- Lartzalde auzoan kokatutako Berasaeneako borda bi zatitan banatzen da jabetzaren arabera (Berasaenea baserria bezalaxe).
- .- Maria Luisa Arrate Luloagaren jabetzazko zatiak, 9 metroko luzera eta 8 m-ko zabalera du, hau da, 72,00 m² inguruko azalera.
- .- Bordak, behe solairua eta teilatupeko solairua ditu, beraz guztira 144,00 m²-ko azalera eraikita dauka.
- .- Harlangaitzezko harrizko hormak ditu.
- .- Berasaeneko baserriko borda, 1980 urtea baino lehen egina dago.
- .- Lizartzako AASS-en arauera urbaniezinak diren lurretan kokatzen da eraikina. AASS-en arabera lur urbaniezinetan txabola eta borden eraikuntza ahalbideratzen da baina beti ere, ustiapen bati lotuta.
- .- Berasaeneako bordaren kasuan, Berrikuspen prozesuan dauden Arauetako Katalogo proposamenean sartu da, Udal ondasun kalifikazioarekin. Honen bitartez beraz, izaera kontsolidatua izango luke.

KONTUTAN HARTUAZ.- Ekainaren 16ko 1/1992 Errege-Dekretu Legegilearen bidez onartutako Lurzoruaren eta Hiri-Antolamenduaren Erregimenari buruzko Legearen Testu Bateratuaren 249-1 artikuluko a) hizkian ezarritakoa ikusirik,

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

1.- Maria Luisa Arrate Luloaga Andreari, Berasaeneako Borda legeztatzeko baimena ematea.

Baimen hau, hirugarren baten jabetza eskubidea errespetatu eta horren kalterik gabe ematen da.

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertzeko errekurtsioa jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsioaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen¹ 116. artikulua eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa zuzen-zuzenean jar daiteke, aldez aurretik berraztertzeko errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita; eta, aurkeztu, Alkateari aurkeztu behar zaio.

BILKURA DEIA – 644/2005

ALKATETZAREN DEKRETUA

¹ Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

Idazkariak prestatutako espedienteen zerrenda ikusirik, berak lagunduta, eta Antolaketa eta Ihardutze Araudiaren 82.1 artikulua, eta arau baterakorrak, ikusirik, ERABAKI DUT:

1.- AZAROaren 28an, goizeko 8tarako, Bilkura Nagusirako deia luzatzea, hurrengo GAI ZERRENDAREKIN:

- 1.- Aurreko Bilkurako Akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.
 - 2.- Construcciones Etxaide S.L. Hitzarmena.
 - 3.- Itelazpi.
 - 4.- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin Hitzarmena.
 - 5.- Alkatetza Dekretuak.
 - 6.- Bestelakoak.
- 2.- Idazkariak, Udaleko zinegotziei deia egiteko, beharrezko diren tramiteak burutuko ditu, erabaki hau beteaz.

6.- BESTELAKOAK

Alkatetak hitza harturik, eginiko hainbat gestioen berri eman du:

Lizartzako Laguntzazko Arauetako A-2 zonaldeari dagokion hitzarmena.

U-1 Industrialdea eta bertako zubiarekin sortu diren arazoak.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, goizeko bederatzia laurdena gutxiago direnean.